BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

5923

EBAZPENA, 2012ko abenduaren 5ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Honen bidez, argitara ematen dira itunpeko ikastetxeei –hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak behar bezala eskolatzeko irisgarritasun-obrak egiteko– emandako diru-laguntzak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko uztailaren 4ko Agindua aplikatuz (Irisgarri 2012).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko uztailaren 4ko Aginduaren bitartez, irisgarritasuna sustatzeko 20/1997 Legeari jarraituz, laguntzetarako deia egin zitzaien itunpeko ikastetxeei hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak behar bezala eskolatzeko irisgarritasun-obrak egiteko.

Honako hauek aztertu ditugu: aurkeztutako eskabideak, ebaluazio-txostenak, 2012ko uztailaren 4ko Aginduaren hamargarren artikuluan jasotako esleipen-irizpideak eta agindu bereko bederatzigarren artikuluari jarraituz eratu den balorazio-batzordeak bidalitako ebazpen-proposamena. Hori guztia kontuan hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak behar bezala eskolatzeko irisgarritasun-obrak egiteko inbertsio-gastuak finantzatzeko laguntzak ematea Ebazpen honen I. eranskinean aipatzen diren itunpeko ikastetxeei; eranskin horretan azaltzen da zenbat diru ematen zaien itunpeko ikastetxe horiei.

Bigarrena.– 2012ko uztailaren 4ko Aginduaren 15. artikuluarekin bat etorriz esleitutako diru-kopurua jasoko dute ikastetxe onuradunek.

Hirugarrena.– II. eranskinean zerrendatzen diren ikastetxeei ukatu egiten zaie diru-laguntza. Izan ere, ez dituzte betetzen 2012ko uztailaren 4ko Aginduan jasotako deialdi-baldintzak.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta, beraren kontra, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik kontatzen hasita, 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abenduaren 5a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MARÍA SOLEDAD ESTEBAN GALARZA.

I. ERANSKINA

Zenbakia	Ikastetxea	Herria	Lurraldea	Diru-laguntzaren zenbatekoa (€)
1	CPEIPS Sagrado Corazón HLBHIP	Vitoria-Gasteiz	Araba	24.642,44 €
2	CPES Ikasauto BHIP	Barakaldo	Bizkaia	15.838,57 €
3	CPEIPS Salesianos Deusto HLBHIP	Bilbao	Bizkaia	20.069,16 €
4	CPEIPS Trueba de Artxanda HLBHIP	Bilbao	Bizkaia	5.210,40 €
5	CPEIPS Berrio Otxoa HLBHIP	Bllbao	Bizkaia	8.482,54 €
6	CPEIPS La Salle HLBHIP	Bilbao	Bizkaia	5.616,23 €
7	CPES San Jose-Maristak BHIP	Durango	Bizkaia	3.832,04 €
8	CPEIPS Ntra. Sra. de Lourdes HLBHIP	Elorrio	Bizkaia	7.014,22 €
9	CPEIPS Padre Andres Urdaneta HLBHIP	Loiu	Bizkaia	24.642,44 €
10	CPEIPS La Salle-Berrozpe HLBHIP	Andoain	Gipuzkoa	1.305,13 €
11	CPEIPS La Salle-San Jose HLBHIP	Beasain	Gipuzkoa	4.043,06 €
12	CPEIPS Beasain Ikastola HLBHIP	Beasain	Gipuzkoa	940,49 €
13	CPES Nazaret BHIP	Donostia	Gipuzkoa	8.984,74 €
14	CPEIPS Sto. Tomas Lizeoa HLBHIP	Donostia	Gipuzkoa	24.642,44 €
15	CPES Seim BHIP	Donostia	Gipuzkoa	8.448,38 €
16	CPEIPS Deutsche Schule San Alberto Magno HLBHIP	Donostia	Gipuzkoa	24.642,44 €
17	CPEIPS Haurtzaro Ikastola HLBHIP	Oiartzun	Gipuzkoa	2.960,96 €
18	CPEIPS Orio Ikastola HLBHIP	Orio	Gipuzkoa	14.819,96 €
19	CPEIPS Usabalgo Laskorain Ikastola HLBHIP	Tolosa	Gipuzkoa	23.060,26 €
20	CPEIP Presentación de Maria HLHIP	Urnieta	Gipuzkoa	12.781,53 €
21	CPEIPS Maria eta Jose HLBHIP	Zumaia	Gipuzkoa	8.022,57 €

II. ERANSKINA

Zenbakia	Ikastetxea	Herria	Lurraldea	Ukatzeko arrazoia
22	CPEIPS Lautada Ikastola HLBHIP	Salvatierra-Agurain	Araba	Eskaerak ez du betetzen 2012-07-04ko Aginduaren 1. artikulua